

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2017 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, onartzen dituena dirulaguntzen eremuko oinarri arautzaile orokorrak; hain zuzen ere, ikasketak direla-eta bizitokiaz bestelako udalerrri batera joan behar duten ikasle gazteen garraiorako dirulaguntzen eremuko oinarri arautzaile orokorrak**

Foru aldundiaren gobernuaren legegintzaldiko helburuetako bat lurralde oreka erdiestea da, hau da, Arabako herritar guztiek baldintza beretan izatea zerbitzu publikoetarako sarbidea. Zerbitzu publiko horien artean garraio kolektiboa eta hezkuntza daude.

Foru dekretu honen eranskin gisa jasotako oinarri orokor arautzaileen bigarren atalean zehazten den moduan, oinarri horien laguntza lerroek ikasketak egiteko norbera bizi den udalerritik beste batera joatearen ondoriozko garraio gastuak estaltzea dute xede.

Ildo horretan, adierazi behar da foru sail honek laguntza lerro horiek ematean lortu nahi duen helburua ikasleak egoitzaz aldatzea saihestea dela, horrela bizi diren herrian eta herrigunean geratzea sustatzeko, modu horretan lurralde orekari laguntzen baitzaio.

Dirulaguntza horiek eskuratzeko publikitate, lehia eta objektibotasun printzipioak bermatzen dituzten oinarri argi eta zehatzak ezarri behar direla kontuan hartuta eta, era berean, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatutakoa aplikatuz, kasuan kasuko deialdian zerrendatzen diren betekizunak betetzen dituzten ikasle gazteentzako laguntza horiek arautuko dituzten oinarriak aurkezten dira.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### XEDATZEN DUT

Ikasketak egiteko bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteentzako garraiorako dirulaguntzen eremuan aplikagarriak diren oinarri arautzaile orokorrak onestea. Aipatutako oinarriak dekretu honen eranskin gisa jaso dira.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 4a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZALEZ VICENTE**

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta*

*Lurralde Oreken Saileko diputatua*

**MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Oreken zuzendaria*

**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**

**ERANSKINA**

Bizi diren udalerritik beste batera joan behar duten ikasle gazteentzako dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileak

**Lehenengoa. Xedea**

Oinarri hauen xedea da aurrekontu kredituetatik ordaindu beharreko dirulaguntzak arautzea, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailaren eskumen esparruan. Deialdi bakoitzean zehaztuko dira laguntza horiek.

**Bigarrena. Laguntza lerroak**

Ikasketak egiteko norbera bizi den udalerritik beste batera joateko gastuak.

**Hirugarrena. Betekizun orokorrak**

Deialdian zehazten diren betekizunetaz gain, kasu guztietan:

1) Onuradunak:

- a) 25 urte edo gutxiago dituen edo eskaera egiten den urtean 25 beteko dituen ikaslea izatea.
- b) Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea.

c) Arabako Lurralde Historikoan kokatutako zentroetan matrikulatuta egotea deialdian zehazten diren ikasturteetan.

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituzten ikasleak adingabeak direnean, gurasoak, tutoreak edo adingabeen babesaren arloko eskumena daukan erakunde publikoaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera dela bide haien ardura hartu duten pertsonak.

2) Ikasketak eta eskolaldia:

Unibertsitateaz kanpoko ikasketak: batxilergoa, erdi eta goi mailako lanbide heziketa arautua, lanbide hastapenarako ikastaro ofizialak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi mailako ikasketak ofizialak, Kirol Irakaskuntzen erdi mailako ikasketak ofizialak, Dantza eta Musikako erdi mailako ikasketak ofizialak.

Ikasketak mota hauek baztertzen dira: beste prestakuntza batzuetarako edo oposizio eta antzekoetarako trebatzeko ikastaroak, ikerketa, graduondoko eta espezializazioko ikasketak eta urrutiko ikasketak.

Diruz lagundutako eskolaldia ikasturte bakoitzeko irailtik ekainera artekoa izango da.

Ikasturtea amaitutakoan emango dira laguntzak.

3) Onuradunek betebeharrak izango dituzte:

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak egin beharreko egiaztapenei men egitea eta hark zuzenean edo Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren bidez, Kontuen Epaitegiaren bidez, baimendutako auditoreen bidez edo beste organo eskudun batzuen bidez eskatzen duen informazio guztia ematea.

Sailari berehala jakinaraztea edozein administraziok edo erakunde publiko zein pribatuk emandako dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzen baditu. Horrez gain, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan gertatzen diren aldaketak jakinaraziko dira.

**Laugarrena. Dirulaguntzak ematea**

Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta, kasuan kasuko deialdian besterik zehaztu ezean, norgehiagoka izango da.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea**

1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean edo Arabako kuadrillen egoitzetan aurkeztu beharko dira, horretarako diseinatu diren eta aldundiaren web orrian ([www.araba.eus](http://www.araba.eus)) edo Arabako kuadrillen web orrietan eskuragarri egongo diren ereduak erabiliz; hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Gainera, deialdi bakoitzean zehazten den dokumentazioa gehitu beharko da.

Eskatzaileak sinatuko du inprimaki ofiziala. Eskatzailea adingabea bada, aitak, amak edo tutoreak sinatuko du.

2. Dirulaguntza hauetarako eskaerak aurkezteak oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea dakar.

3. Deialdi bakoitzean ezarritakoa izango da eskaerak aurkezteko epea.

4. Aurkeztutako eskaerekin batera eskatutako agiriak aurkezten ez badira edo emandako informazioa nahikoa ez dela uste bada, erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio 10 egun balioduneko epean dagokion dokumentazioa bidal dezan. Eskatutako agiriak ez badira bidaltzen arestian adierazitako epean, erakundeak eskaeran atzera egin duela ondorioztatuko da eta laguntza ukatuko da.

5. Eskaera behar bezala betetzat eman dadin, eskaera egiteko inprimakietan eskatzen diren agiri guztiak erantsi behar dira, eta proiektuari buruz emandako informazioa nahikotzat jo behar du Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak.

6. Jakinarazpenetarako, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak eskaeran jasotako egoitza erabiliko du. Eskatzailearen zeregina izango da aipatutako sailari datuetan egondako edozein aldaketa berariaz jakinaraztea, batik bat eskatzailearen egoitzari edo banku kontuko datuei dagokienez.

7. Behar beste informazio eskatu ahalko dio Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak eskatzaileari, emandako datuak egiaztatzeko, laguntzaren edozein izapidetze fasetan, bai eta dirulaguntzaren inguruko beste edozein dokumentazio osagarri ere.

**Seigarrena. Dokumentazioa**

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Laguntza eskaera, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Sailak emango duen inprimaki normalizatuan.

b) Ikaslearen NANaren fotokopia edo, ikaslea adingabea bada, eskatzailearen NANarena.

c) Familia liburuaren fotokopia (ikaslea adingabea bada).

d) Ikaslea harreran edo tutoretzapean badago, egoera horren frogagiria (ikaslea adingabea bada).

e) Ikaslea Araban kasuan kasuko deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n erroldatuta dagoelako egiaztagiria.

f) Matrikulazioaren agiria, egiaztatzeko ikaslea matrikulatuta dagoela hirugarren oinarrian aipatutako ikasketetan, ikasturtean zehar, Arabako Lurralde Historikoan dagoen ikastetxe batean.

g) Eskatzailearen titulartasuneko banku libretaren fotokopia.

h) Deialdian eskatzen den beste edozein agiri.

**Zazpigarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Zenbatekoa zehazteko, deialdi bakoitzean eskatzen diren eta kasuan kasuko ikasturteko garraio gastuak modu fede-emailean egiaztatzen dituzten frogagiri eta ziurtagiriak hartuko dira kontuan.

**Zortzigarrena. Balioespen batzordea eta ebazpena**

Deialdian zehazten diren pertsonak osatutako balioespen batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horrek laguntza emateko proposamen txosten bat idatziko du, eta gastuak baimendu, xedatu eta antolatzeke gaitutako organoak ebatzi egingo du, eskaera emanez edo ukatuz, deialdi bakoitzean ezartzen den epean.

Oinarri hauek eta haien ondorioz sortutako administrazio egintza oro aurkaratu ahalko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezarritako kasuetan eta eran. Ez da entzunaldi izapiderik aitortuko, eskatzaileek aurkeztutako egitateak eta agiriak soilik hartuko baitira kontuan ebazpenean.

**Bederatzigarrena. Datuen babesa**

1. Eskaerak betetzearen ondorioz lortzen diren datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean gordeko dira tratatzeko, 15/1999 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorriz. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren dirulaguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko fitxategi hori, eta horko datuak ezin izango zaizkie hirugarrenei laga.

2. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak aitortzen dituen eskuratzeko, ezeztatzeke eta zuzentzeke eskubideak erabiltzeari buruzko edozein kontsulta edo iruzkin pertsonal Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrera bidali beharko da.

3. Interesdunak datu horiek fitxategian sartzeari uko egiten badio, ez du jasoko dirulaguntzarik.

**Hamargarrena. Izapidetzea**

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko Toki Administrazioaren Zerbitzua da laguntza emateke prozedura antolatu eta izapidetzeko organo eskuduna.

**Hamaikagarrena. Dirulaguntza aldatzea**

Dirulaguntza emateke kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta, edozer dela ere, edozein erakunde publiko edo pribatuk gauza bererako emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortzen badira, dirulaguntza emateke ebazpena aldatu eta dirulaguntzaren zati bat itzuliko da.

**Hamabigarrena. Esleipena**

1. Iragarritako dirulaguntzetarako xedatutako gehieneko zenbatekoa ezarriko du deialdiak, bai eta egozten zaizkien aurrekontu partidak ere.

2. Aurrekontu ekitaldian emandako laguntzen guztizko bolumenak ez du esleipen hori gaindituko. Hala ere, deialdietan guztizko kostu horren proportzio jakin batera mugatu ahalko da finantzaketa publikoa. Komenigarritzat jotzen bada, eskatzaile edo diruz lagundu beharreko jarduketa bakoitzeko gehieneko dirulaguntza zenbatekoa adieraziko da.

**Hamahirugarrena. Ebazpena**

Dirulaguntza eskaerari baiezkoa ematen bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeke modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreke agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Dirulaguntza emateke ala ukatzeko ebazpena idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei, jakinarazpenetarako adierazi duten lekuan. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik.

Zuzenean aurkaratu ezean, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio eba-zpena eman duen organoan, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritz.

#### **Hamalagarrena. Dirulaguntzak ordaintzea**

Ordainketa bakarra eta izenduna, onuradun bakoitzarentzakoa, izango da.

#### **Hamabosgarrena. Bateragarritasunak**

Laguntza jasotzea bateraezina izango da garraiorako emandako beste edozeinekin. Hala ere, Foru Sektorre Publikoak ikasketetarako emandakoekin bateragarria izango da, deialdi honetako laugarren atalean ezarritako mugarekin.

Atal honetan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak laguntzeko eskatu ahal izango die antzeko laguntza programak dituzten beste administrazio eta erakunde batzuei. Halaber, aipatutako sailak erakunde horiek dauzkaten datuak erabili ahal izango ditu behar diren egiaztapenak egiteko. Dirulaguntza eskaera aurkezteak baimena emango dio Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailari eskatzailearen datuak eskuratzeko eta antzeko laguntza programak dituzten administrazio edo erakundeetan daudenekin alderatzeko.

#### **Hamaseigarrena. Ez betetzea**

1. Baldin eskatzaileek laguntza deialdietan eta oinarri orokor hauetan araututako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza ezeztatu egin daiteke, eta, dirulaguntza dagoeneko ordainduta badago, eskatzaileak nahitaez dirulaguntza hori itzuli egin beharko du, indarrean dagoen le-giarekin bat etorritz Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak zehazten duen eran.

2. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak bidezkoak diren lege ekintzak gau-zatu ahalko ditu erabaki honetan xedatuta dauden laguntzen administrazio ebazpenetan hizpa-tutakoaren ez betetze larriak gertatzen badira, baita ziurtagiri faltsuak eta bete gabeko aitortenak aurkeztuz gero ere.

#### **Hamazazpigarrena. Publizitatea eta indarrean sartzea**

Oinarri hauek ALHAOn argitaratuko dira eta argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

#### **Hamazortzigarrena. Araudi aplikagarria**

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorra, dirulaguntzena, onartzen duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena, indarrean dagoen aurrekontu anto-lamendua; urriaren 1eko 39/2015, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.